

Gizarte Ongizate Sailak hainbat ekitaldi antolatu ditu martxoaren 8an Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzeko, euren artean "Olga, Victoria Olga. Un tiempo sin tiempo" izeneko filmaren emanaldia eta ondoko solasaldia. Filmaren zuzendariak, Portugalen dagoeneko ezaguna dugun Mercedes Farriols aktore argentinarrak aurkeztuko du filma eta zuzenduko du emanaldiaren ostean egingo den solasaldia.

Gizarte Ongizateko zinegotzi eta desberdintasun gaiekin kezkatutako emakumea naizen aldetik, berretsi egiten dut Udalak hartua daukan konpromisoa berdintasun politikak bultzatzeko, ezinbestekoak direlakoan generoko bereizkeriei aurre egiteko, eta nazioarte mailako politiken beharra aldarrikatzen dut gizarte bidezkoagoak, ekitatiboagoak eta demokratikoagoak egituratzeko, munduko lau hegaletan emakumeek pairatzen dituzten borixakeria, pobrezia eta desberdintasun egoerak behingoz ezabatuzeko.

Film hau ikustera gonbidatzen zaituztet, bere istorioan murgilduz ikusiko dugulako zeinen garrantzitsua den emakumeek gizartearen dagokien tokia hartzea.

Bihoa bide batez honekin nire agurrik beroena zuentzat.

Maria Dolores Ciordia
Lehen alkateordea
Gizarte Ongizateko zinegotzi delegatua.

"Olga, Victoria Olga" Filmaren laburpena

35 mm / 89' / Kolorez 2006.

Film honek emakume zaharren jakituria errebindikatzen du. Hiru belaunalditako hiru emakume agertzen dira bertan.

Alkoholak eragindako auto istripuek pertsona bat hiltzen dute 30 minuturik behin, istripu horiek nerabeen artean gertatzen diren heriotzen eragile nagusia eta kezka-iturri larria dira guraso askorentzat.

Barbara izeneko nerabea iritziak zaito bere eguneroko bizitza, eta aita zirika ari zaito atera dadin bere jaioterri txikitik eta abia dadin norabait bere etorkizunaren bila. Goizalde batean, jai batetik landa, etxera itzultzen da bere mutil lagunarekin eta beste bi mutilekin, autoa 100 kilometrotik gorako abiadara ekarrita. Edanda daude eta istripua izaten dute. Uretara erori orduko Barbarak ikusten duen azken irudia Zubi Eteki bat da, zeinetatik sortuko den bere amama Olgaren ipuina. Laurogeita hamar urteko amona horren ipuinean dago bilduta Barbararen garaia ez eze munduko garai guztiak ere ulertzeko giltza.

MERCEDES FARRIOLS

Artista soziala

Mercedes Farriols idazlea da, zuzendaria, aktore, hezitzailea eta emakume argentinarra. Sortzaile oparoa izaki, jenero guztiak jorratu ditu: 17 antzezlan, poesia, eleberrak, ipuinak, saiakerak, artikulak eta telebistarako gidoiak. Biolen-tziarik Ezaren militantea eta Giza Eskubideen nola Emakumeen Eskubideen aldeko borrokalari akigaitza, izen bat egin du dagoeneko ez bakarrik artista eta irakasle gisa, baina baita ere artearen bitartez burutzen duen gizarte lanagatik.



2007KO MARTXOAREN 8A

LEKUA: Nautika-Eskolako Ekitaldi Aretoa

ORDUA: 18:00etan

SARRERA: Doan



8 DE MARZO

Día
Internacional
de la Mujer

Presentación, proyección y debate
de la película a cargo de
Mercedes Farriols:

Olga, Victoria Olga

"Tres generaciones de mujeres que reivindican
la sabiduría de nuestras mujeres mayores"

Fecha: 8 de marzo de 2007

Hora: 18:00

Lugar: Salón de Actos de la Escuela de Náutica



AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE
Bienestar Social